



Atzerriko leku-izenetatik herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak eratzeko gidalerroak

- Kontuan hartu beharrekoak
- Taulak
 - Kontsonantez amaitutako leku-izenetatik eratuak
 - Bokalez amaitutako leku-izenetatik eratuak

Euskaltzaindiaren 178. araua:

Kanpoko leku-izenei dagozkien herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak sortzeko irizpideak



Kontuan hartu beharrekoak

Euskal Herritik kanpoko herritar-izenek eta jatorri-adjektiboek leku-izen berezia dute oinarri, eta ez maileguz harturiko jentilizioa:

- Europa › **europar** / ***europear**
- Arabia › **arabiar** / ***arabear**
- Egipto › **egiptoar** / ***egipziar** (egiptiar)
- Holanda › **holandar** / ***holandestar**
- Portugal › **portugaldar** / ***portugestar**
- Maroko › **marokoar** / ***marrokiar**



Kontuan hartu beharrekoak

Herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak, leku-izen berezietatik sortzen badira ere, letra xehez idazten dira:

- "My Fair Lady" filmean, aristokraziako jaun batek **londrestar** lore-saltzaile bat erreskatatzen du ezjakintasunetik..
 - *...jaun batek **Londrestar** lore-saltzaile bat...



Geografia-izenetan izan ezik:

- Iberiar penintsula (***iberiar** penintsula)
- Iberiar goi-lautada (***iberiar** goi-lautada)
- Iberiar sistema
- Dinariar Alpeak
- Britainiar uharteak
- Eskandinaviar penintsula
- Italiar penintsula
- Kantauriar mendikatea
-

Kontuan hartu beharrekoak

Kokapenari dagokionez, jatorri-adjektiboak izenaren aurrean zein atzean agertzen badira ere, izenaren aurreko kokapenak du tradizio zabalena:

- **londrestar** lore-saltzailea
(lore-saltzaile londrestarra)
- 40 **txiletar** irakasle
(40 irakasle txiletar)
- **amerikar** zientzialari bat
(zientzialari amerikar bat)
- **italiar** aktorea
(aktore italiarra)





Kontuan hartu beharrekoak

Bi hitzez edo gehiagoz osatutako leku-izenetatik sortzen diren herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak hitz bakar batez osatzen dira:

- Costa Rica: **costarricar**
 - ***costa ricar**
- Estatu Batuak: **estatubatuar**
 - ***estatu batuar**
- Kaledonia Berria: **kaledoniaberritar**
 - ***kaledonia berritar**





Kontuan hartu beharrekoak

Herritar-izena edo jatorri-adjektiboa konposatua bada, hau da, bi izenez edo bi adjektiboz osatua bada, marraz bereizi behar dira izenak edo adjektiboak elkarrengandik:

- **austro-hungriar**
- **anglo-estatubatuar**
- **italo-alemaniar**
- **turko-zipretar**
- **luso-brasildar**
- **afro-asiar**
- **serbo-kroaziar**
- **hispano-argentinar**
- ...

Baina leku-izena konposatua bada, loturik idazten dira:

- (Hispanoamerika) **hispanoamerikar**
- (Latinoamerika) **latinoamerikar**
- (Eurasia) **eurasiar**
- (Indoeuropa) **indoeuropar** (*indoeuropear)



Kontuan hartu beharrekoak

Hala [+gizaki] izenek nola [-gizaki] izenek har ditzakete jatorri-adjektiboak. Hala ere, izena [-gizaki] motakoa delarik, [NONGO] izenlaguna erabiltzea hobesten da, non eta ez den beharrezkoa jatorri-adjektiboa baliatzea:

- Valentziako laranjak jan ditut
 - **Valentziar laranjak jan ditut.*
- Paris(e)ko kaleetatik paseatu ginen.
 - **Paristar kaleetatik paseatu ginen.* [Nongo kaleak]
 - *Bartzelonako kale paristarretatik¹ ibili ginen.* [Nolako kaleak: Pariseko kaleen estilokoak]
- jatetxe txinatarrak [NOLAKOA] ≠ Txinako jatetxeak [NONGOA]
- saltsa amerikarra [NOLAKOA] ≠ Amerikako saltsa [NONGOA]



¹ Jatorri-adjektiboek adjektibo kalifikatzaile gisa jokatzeko dutenean ([NOLAKOA]), adjektibook izenaren atzean kokatzea da joera nagusia.



Kontuan hartu beharrekoak

-(T)AR atzizkiaren bidez sorturiko jentilizioak ez dira hizkuntzak izendatzeko erabili behar.

- **Italieraz** hitz egin zidan.
 - ***Italiarrean** hitz egin zidan...



- Garai hartan zientzialari askok **alemana** zekiten, zientzia-hizkuntza baitzen.
 - ***...alemaniarra** zekiten...





Kontuan hartu beharrekoak

Fitxa honetan aztertutako jentilizioez gainera, badira beste batzuk, tradizio handikoak horiek ere, baina -(T)AR atzizkia gabe sortuak

- | | | |
|------------|-----------|------------|
| ○ aleman | ○ galego | ○ katalan |
| ○ espainol | ○ greko | ○ portugés |
| ○ frantses | ○ ingeles | ○ ... |

Jentilizio horiek, -(T)AR atzizkidunak bezala, izenaren ezkerrean (*aleman poeta*) zein eskuinean (*poeta alemana*) joan daitezke.

Haietako batzuk, hala nola gorago aipatuak, izen bihurtuta, hizkuntzak izendatzeko erabiltzen dira.

- Erasmusko ikasle *aleman* batek *katalanez* egin zidan.

TAULAK

Kontsonantez amaitutako leku-izenak

Leku-izenaren amaiera	Atzizkiaren forma	Adibideak	Salbuespenak
l / m / n	-dar	(Nepal) nepaldar (León) leondar (Jerusalem) jerulasemdar	
f, g, j, p, q, r, s, x, z	-tar	(Leipzig) leipzigtar (Londres) londrestar (Salvador) salvadortar	(Luxemburg) luxemburgar
ng	-dar	(Bandung) bandungdar (Hong Kong) hongkongdar (Piongiang) piongiangdar	
b, v, w	-tar	(Magreb) magrebtar (Kiev) kievtar (Glaskow) glaskowtar	(Zagreb) zagrebar
k, c	-tar	(New York) newyorktar (Quebec) quebecar	(Minsk) minskar (Reykjavik) reykjavikar (Bixkek) bixkekar (Bangkok) bangkokar (Irak) irakiar
d	-ar	(Belgrad) belgradar (Islamabad) islamabadar (Riad) riadar	(Akad) akadtar (Nimrud) nimrudtar
kontsonantea + h	h-aren aurreko kontsonantearen arabera	(Kish) kishtar: s > -tar (Perth) perthar: t > -ar (Phonm Penh) phonmpenhdar: n > -dar	
bokala + h	-tar	(Ramallah) ramallahtar (Kermanxah) kermanxahtar	
t	-ar	(Bukarest) bukarestar (Budapest) budapestar (Kuwait) kuwaitar	
ts / tx / tz	-star / -xtar / -ztar	(Saint Kitts) sankistar (Felanitx) felanixtar (Metz) meztar	

GORA

Bokalez amaituUfR! eORI~dJO" fR

Leku-izenaren amaiera		Atzizkiaren forma	Adibideak	Salbuespenak
-a	silaba bat edo bi	-tar	(Txina) txinatar	(Malta) maltar (Troia) troiar (Suitza) suitzar
	bi silaba baino gehiago	-ar	(Albania) albaniar (Bartzelona) bartzelonar (Gaztela) gaztelar (Andaluzia) andaluziar	(Andorra) andorratar (Erroma) erromatar (Judea) judeatar
-e		-tar	(Txile) txiletar (Gaborone) gaboronetar (Mozambike) mozambiketar	(Kotte) kottetar (Trinitate) trinitatear
-i		-ar	(Aragoi) aragoiar (Djibuti) djibutiar (Burundi) burundiar	(Afrika Erdiko Errep.) afrikaerditar (Brunei) bruneitar (Hanoi) hanoitar (Kaledonia Berria) kaledoniaberritar (Paraguai) paraguaitar (Taipei) taipeitar (Uruguai) urugaitar (Zelanda Berria) zelandaberritar
-y		-iar	(Kronakry) konakriar (Port Moresby) portmoresbiar (Canterbury) canterburiar	
-o		-ar	(Damasko) damaskoar (Egipto) egiptoar (Vatikano) vatikanoar	(Bizantzio) bizantziar (Kairo) kariotar (Kartago) kartagotar (Luxenburgo) luxenburgotar (Maurizio) mauriziar (Pirinio) piriniotar (Santiago) santiagotar (Tokio) tokiotar
-u		-ar	(Estatu Batuak) estatubatuar (Arabiar Emierri Batuak) emirerribatuar (Urartu) urartuar	(Ginea Bissau) gineabissautar (Bissau) bissautar (Katmandu) katmandutar (Mosku) moskutar (Peru) perutar (Roseau) roseautar (Thimphu) thimphutar (Tubalu) tubalutar (Uagadugu) uagadugutar (Baku) bakutar (Nassau) nassautar